

Tren mantso horrek merezi al du hausturarik?

Orain arte mantso-mantso joan den tren lasterraren proiektuak arrakala sortu du Nafarroako Gobernuari sostengua ematen dioten artean. Geroa Bai azpiegituraren aldekoa den bitartean, EH Bildu, Ahal Dugu eta Ezkerra aurka daude. Gure gogoia holako loturak egiten trebea baita, nik *tren lasterra* kontzeptua entzuten dudak bakoitzean pasadizo bat gogoratzen dut: XX. mende hasierako baserriar bikote ezkonberria Irunera joan da, Madrilerako trena hartzeko. Sekula holakorik egin gabeak izanik, pozik daude oso, ezkonbidaia lehenbizikoa eta azkena ere izan zitekeela jakitun.

“Goizian irten Irundik eta/iluntzerako Madrila”. *Txirrita*-k kantatu bezalako bidaia luzea da hori: hamabi ordukoa. Ezkonberriek ibilbidea egin duten egunean, ordea, Norteko Ferrokarrila uste baino azkarreago joan da. Abiatu direnetik hamaika ordura Madrilen dira gazteak. Eta zein da bikotearen erreakzioa? Gaurko talaiatik begiratuta harrigarria iruditzen arren, goibel daude biak, bidaia uste baino laburragoa izan delako. Bidaia ordu bat kendu dietela iruditzen zaie.

Abiadura handiko trena ezagutu ez zuen bikote hark, seguruenik, guk baino gehiago zekien bizitzaren bidaiaz. Gauza jakina da orain oso azkar bizi garela,



Fermin Erbiti Zabalza

KAZETARIA

Berriki jakin dugunez, Estatuak hartuko du bere gain obra lanen kudeaketa osoa, Nafarroako Gobernuak horretan aitzina egiteko asmorik ez duela argudiatuta. Albisteak pozgarria ez izan arren, alde onik ere badu: gaiak lauokan sorturiko tentsioa gutxitzen lagungarri izan daiteke

azkarregi. Eta bidaiatu ere horrela egin nahi dugu: ziztu bizian batetik bestera, ahalik eta azkarren heltzeko, helmuga besterik ez gogoan. Trenean ere, trepetan elektronikoren bat mahai gainean paratuta joan gara, telefonoari etengabe begiratuz, kaskoak belarrietan jantzita. Paisaiari eta ondoan dugunari kasurik egin gabe, hori dena denbora galtze hutsa delakoan. Gaurko gizartean ahantzirik dago bidaiaren plazera, erre-medioren gabe.

Eta erre-medioren izanen al du etorkizuneko trenak lauokan sortu duen pitzadura? Geroak esanen digu. Berriki jakin dugunez, Estatuak hartuko du bere gain obra lanen kudeaketa osoa, Nafarroako Gobernuak horretan aitzina egiteko asmorik ez duela argudiatuta. Albisteak pozgarria ez izan arren, alde onik ere badu: gaiak lauokan sorturiko tentsioa gutxitzen lagungarri izan daiteke. Nire ustetan, aldeko zein aurkakoez tren lasterraren orain arteko abiadurari erreparatu beharko liokete, desadostasunak hausturarik ez duela merezi frogatzeko. Esan bezala, proiektua Nafarroa eta Gipuzkoa lotzen zituen *Plazaola* zaharra baino mantsoago ibili da orain arte, hemen eta Estatu osoan; eta legegintzaldia amaitzeko falta diren bi urteetan ere, nekez hartuko du abiadura handirik. ■


CándidoBesa
U P A T E G I A

Eskuernaga (Arabar Errioxa)
Tel.: + 34 945 623 355 / 685 738 193
www.candidobesa.com

